

Basauriko Osoko Bilkurak, 2013ko ekainaren 27an, Ostalaritzako Terrazak Jartzea Arautzen Duen Udal Ordenantzari hasierako onarpena eman zion. Behin erabaki hori jendeaurrean ikusgai egoteko epea igarota, eta erreklamaziorik aurkeztu ez direnez, behin betiko onetsita dagoela ulertzen da. Horrenbestez, bere testu osoa jarraian argitaratzen da (Tokiko Araubidearen Oinarrien 7/85 Legeak bere 49. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorriz):

OSTALARITZAKO TERRAZAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

ZIOEN AZALPENEA

Gero eta ugariagoak dira ostalaritzako jardueren titularrek terraza egonkorrak jartzeko egindako eskaerak eta udal arautegiak, orain arte, jorratu gabe izan du gai hori. Beste alde batetik, gizarteak aspaldi eskatu du gaur egun dauden terraza desmuntagarrien antolamendua hobetzeko. Horri guztiari erantzuteko egin da Udal Ordenantza hau.

Xede horrekin, eta arautegiak talde guztien eskaera eta beharrezanez egokiro erantzun diezaion, Udaleko oinezkoentzako guneetan bereziki, zenbait bilera egin dira interesdunen edota ukituen taldeekin, ostalaritzako terrazak jartzeko arautegi espezifikoagoa garatzeko helburuarekin.

Hala, bada, Ordenantza honetan jasotzen dira ostalaritzako establezimenduei lotutako terrazek errespetatu beharreko ezaugarriak eta baldintzak, bai terraza desmuntagarrienak (orain arte jartzen zirenak, alegia), baita terraza finkoenak ere. Zehazten dira, era berean, instalazio horiek gorde beharreko baldintza tekniko eta estetikoak.

Beste alde batetik, orain arte ostalaritzako establezimenduak eta haiei lotutako terrazak batera arautzen baziren ere, orain bereizi egin dira, bakoitzari dagokion arautegia argitze eta sinplifikatze aldera. Hori da, izan ere, eskualdeko Udaletako irizpide orokorra: bi gai horiek udal ordenantza desberdinetan arautzea.

Udal Ordenantza hau idazterakoan aintzat hartu dira hiri-ingurunean larrialdietarako ezarritako irisgarritasunari eta segurtasunari buruzko irizpide nagusiak, indarrean dagoen araudiak ezarritakoak. Zehazkiago, ondoko arau hauek hartu dira kontuan: hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua; eta indarrean dagoen Eraikuntzako Kode Teknikoaren "Segurtasuna sutea dagoenean" DB-SI Oinarritzako Dokumentua. Zentzu horretan, testuan txertatu dira Bizkaiko Foru Aldundiko Su Itzaltze, Salbamendu eta Sorospen Zerbitzuen buruak emandako argibideak.

I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea

Ordenantza honen xedea da ostalaritzako establezimenduei lotutako terrazak jartzeko ezaugarriak eta baldintzak arautzea, bai terraza desmuntagarrienak, baita finkoenak ere, eta instalazio horien guztien betekizun teknikoak eta estetikoak zehaztea.

2. artikulua.- Aplikazio eremua

Ordenantza hau udalerri guztian jarritako ostalaritzako terraza guztiei, hau da, erabilera publikoko edozein espazio publikotan jartzen diren terraza guztiei aplikatuko zaie, titulartasuna publikoa edo pribatua dela ere.

3. artikulua.- Terrazaren kontzeptua

Terrazak izango dira erabilera publikoko espazio publikoetan edo pribatuetan kokatuta egon eta ostalaritzako establezimenduen osagarri diren mahaien, aulkien eta antzeko altzarien multzoak eta haien instalazio osagarriak, adibidez: itzalkin handiak, eguzkitakoak, eguzki-oihalak, estaldura berezi desmuntagarriak, alboetako babesak, haize-babesleak, argiteria-instalazioak, aire girotzearenak, eta abar.

Terrazak izan daitezke desmuntagarriak ala finkoak.

4. artikulua.- Izaera juridikoa

Bide publikoaren okupazioek eta aprobetxamenduek erabilera komun bereziaren izaera juridikoa dute, jabetza eskubidearen salbuespen gisa ematen dira hirugarrenen eskubideen kalterik gabe eta aurretiko udal-baimenaren beharra dute, Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera emango dena.

Terraza jartzeko baimena, gainera, prekarioan emanda dagoela ulertuko da eta, beraz, interes publikoko arrazoiengatik baliogabetu egin daitekeela kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik gabe. Partikularrak ez dauka berezko eskubiderik baimena edukitzeko, diskrezionalki ematen da baimen hori. Emandako ebazpena edozein izanda ere, behar bezala arrazoitua egon beharko du.

Bide publikoaren okupazio eta aprobetxamendu horiek aldi baterako eten ahal izango dira aurretiazko idatzizko jakinarazpen bidez. Kasu horietan, elementu guztiak bertatik kendu beharko dira. Udalak halako eteteak agindu ditzake berak sustatzen, baimentzen edo interes orokorreko zat jotzen dituen jaiak edota ekitaldi kulturalak, zibikoak edo kirol-ekitaldiak daudenean.

Baimenak etengo dira ere obra publikoak edota baimendutako obra pribatuak daudenean, zerbitzu-enpresek edota partikularrek, obra horiek egiteko, derrigorrean espazio publikoa erabiltzeko beharra dutenean. Etete horien iraupena, obrak egiteko baimendutako epearena izango da.

10 egun baino gehiagoko aldi baterako eteteek, edota interes publikoko arrazoiak direla eta agindutako behin betiko eteteek, ez dute kalte-ordainik ekarriko. Eskubidea egongo da, ordea, udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edota aprobetxamendu bereziagatik ordaindutako tasen zati proportzionala jasotzeko.

II. TITULUA.- BALDINTZA OROKORRAK

Jarraian adierazitako baldintzak terraza desmuntagarrii (Ordenantza honetako III. Tituluan jasotako baldintza espezifikoak dituztenak) eta terraza egonkor edo finkoei (IV. Tituluan araututakoak) aplikatuko zaizkie.

5. artikulua.- Terraza izan dezaketen lokalak

Terraza jarri ahal izango dute, bakarrik, indarrean dagoen lizentzia edo baimena duten ostalaritzako establezimenduek, ondoko hauek salbu: joko-lokalak edo antzekoak (jolas- eta joko-aretoak, bingoak eta kasinoak), karaokeak, dantzalekuak, dantza-aretoak, diskotekak, txokoak eta elkarte gastronomikoak.

Ez zaie terraza jartzeko baimenik emango Udalarekin zorretan dauden ostalaritza establezimenduei, baldin eta zor horiek betearazpen edo premiamenduzko prozedura erabilita galdatzekoak badira eta, bere kasuan, lehenago emandako baimenak baliogabetzea badakarte.

6. artikulua.- Terraza jartzeko baldintza orokorrak

6.1.- Establezimendu bakoitzerako terraza bakarra onartuko da, desmuntagarria ala finkoa izan. Horrek, ordea, ez du sarbidearen ondoan kupel edo mahai altu bat edo bi jartzeko aukera baztertuko, betiere oinezkoak bertara sartzeko gutxieneko baldintzak eta larrialdietako ibilgailuak igartzeko gutxieneko zabalera oztopatzen ez bada.

6.2.- Terrazek ez dute interesa duen herriko paisaiaren ikuspegia oztopatuko, ez eta herriko seinaletikarena, dendena edota inguruko ekipamenduena ere.

6.3.- Debekatuta dago musika tresnak edota irudiak emateko aparatuak jartzea, bai eta zuzeneko musika jotzea ere.

6.4.- Establezimenduko sarrerako atearen eta ostalaritzako terrazaren gertueneko puntuaren artean 20,00 metro baino gehiagoko tartea badago, edota establezimenduaren barrualdetik ez bada terraza guztia ikusten, jardueraren titularrak terrazari arreta emateko zerbitzua eskaini beharko du, eta zerbitzu hori ematen duten langileek bezeroentzat ikusgai egon beharko dute une oro.

6.5.- Debekatuta dago ibilgailuen zirkulazioa ostalaritzako establezimenduen eta terrazaren artean, ondoko kasu hauetan izan ezik: irteerarik gabeko kaleetan edota garaieetako edo aparkalekueetako sarrerak bakarrik dituzten kaleetan, zirkulazio murrizta dutenak.

7. artikulua.- Terrazaren kokapena

7.1.- Izaera orokorrarekin, ez da terrazak jartzeko baimenik emango haien ezaugarri fisikoak edota bertan dagoen oinezkoen igarotzea dela eta, pertsonen segurtasunerako, mugikortasunerako edo irisgarritasunerako desegokiak izan daitezkeen guneetan.

7.2.- Ez da inolaz ere baimenduko terrazak jartzea 3,00 metrotik beherako zabalera duten espaloietan.

7.3.- Debekatuta dago terrazak jartzea honako hauen aurrean: oinezkoen igarobideak, mugikortasun murrizta duten pertsonentzako aparkalekuak, Metroko sarrerak, larrialdietako irteerak, pasabideak, garraio publikoko geltokiak eta taxientzako aparkaleku-lerroen hasierak. Era berean, libre utzi beharko dira ureztatze-ahoak, suteen aurkako ur-hartuneak eta kutxatilen erregistroak, dagozkien zerbitzu publikoek erabili behar badituzte.

7.4.- Terrazak, posible balitz, establezimendua dagoen fatxadaren aurrean jarriko dira. Hala eta guztiz ere, Udal Zerbitzu Teknikoek zehaztuko dute planoan terrazaren kokapen efektiboa, gune bakoitzean dauden ostalaritza-establezimenduen kopurua eta horien kokapena aintzat hartuta (establezimendu horiek terraza jartzeko baimena eskatu duten ala ez alde batera utzita). Ostalaritzako jarduera berriek terraza jartzeko egindako eskaerak kasuan-kasuan aztertuko dira, lehenagotik dagoen egoerari begira.

7.5.- Terrazak ostalaritza-establezimenduaren luzera gainditzen badu, eta terrazaren eta martxan dagoen haren alboko lokalaren fatxadaren arteko distantzia 3,50 m baino gutxiago bada, lokal horretako titularren adostasuna egiaztatu beharko da, hark sinatutako dokumentu baten bidez, ondoko datu hauek jasoko dituenak: jardueraren titularra nor den, NANA edo IFZ, helbide soziala eta proposatutako terraza jartzeari buruzko berariazko adostasunaren egiaztapena.

7.6.- Terrazak jarriko dira lehenagotik dauden hiri-altzarien kokapena aintzat hartuta. Hala eta guztiz ere, hiri-altzariren bat lekuz aldatzea beharrezkoa balitz, hori egiteko aukera aztertuko da, interesdunak aurretiaz eskaera eginda. Hiri-altzarien edozein aldaketa interesdunaren kontura izango da eta Udaleko langileek egingo dute.

III. TITULUA.- TERRAZA DESMUNTAGARRIAK JARTZEKO BALDINTZAK

8. artikulua.- Terrazaren ezaugarriak

Terraza desmuntagarriek, gehienez ere, 12 mahai eta 48 aulki izango dituzte. Gehienez ere, 48 metro koadroko azalera hartuko dute eta, gehienez ere, 12 metro luze izango dira.

Salbuespenez, eta aurretiazko txosten arrazoitua bitarte, 20 mahai eta 80 aulkira arteko terrazak baimendu ahal izango dira, gehienez ere 80 metro koadroko azalera hartu dezaketenak. Halakoak jartzeko baimena eman ahal izango da terraza kokatzeko lekuaren neurriak direla eta, kokapen jakin bat egoki jotzen denean, beti ere oinezkoen igarotzea oztopatzen ez bada eta guneari bere nortasuna galarazten ez bazaio.

Edozelan ere, terraza desmuntagarriek oinezkoentzako igarobide etengabea eta trabarik gabea bermatu beharko dute. Igarobide hori, gutxienez, 2,00 metro zabal izango da ibilgailuen zirkulazioa eta arkupeak dauden kaleetan, eta, gutxienez, 3,50 metro zabal oinezkoentzako kaleetan.

Behin baimena lortuta, titularren kontura izango da okupatzeko baimendutako gehienezko azaleraren mugak modu argi eta zehatzean markatzea. Horretarako, lurrian guneari erpinak margotuko dira, pintura zuriz 50 milimetroko diametrodun puntu bat eginda.

9. artikulua.- Altzarien baldintzak

Halako terrazak osatzen dituzten altzari guztiek behin-behineko izaera izango dute eta desmuntagarriak izango dira.

Terraza horietan jartzeko altzariak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- **Aulki pilagarriak:** Duraluminio anodizatuzko tutuekin egindako egitura izango dute. Eserlekuan eta bizkarraldean plastikozko mamiarekin eskuz egindako ehundura edo aluminio anodizatuzko xaflak edo antzekoak edukiko dituzte.
- **Mahai pilagarriak:** Duraluminio anodizatuzko tutuekin egindako egitura izango dute. Altzairu herdoilgaitzezko damasko-antzeko mahai-tapa eta aluminioz landutako ertzak edukiko dituzte eta horien neurriak 70 x 70 cm –karratua– edo 70 cm-ko diametroa –borobila– edo antzekoak izango dira.
- **Aulki altua:** Duraluminio anodizatuzko tutuekin egindako egitura izango dute. Eserlekuan eta bizkarraldean plastikozko mamiarekin eskuz egindako ehundura edo aluminio anodizatuzko xaflak edo antzekoak edukiko dituzte.
- **Mahai altua:** Duraluminio anodizatuzko tutuekin egindako egitura izango dute. Altzairu herdoilgaitzezko damasko-antzeko mahai-tapa eta aluminioz landutako ertzak edukiko dituzte, honako neurri hauekin: 60 cm-ko diametroa eta 110 cm-ko altuera, edo antzekoak.
- **Eguzkitakoa:** Egur naturalarekin egindako egitura, euritakoaren tankerakoa, eta olanazko eguzkitakoa. Neurriak honako hauek izango dira: 300 X 300 cm eguzkitako karratuetarako, eta 250 edo 300 cm-ko diametroa eguzkitako borobiletarako, edo antzekoak.
- **Haize-babesleak, bereizgailuak, lorontziak, oihal hedagarriak eta beste instalazio batzuk:** Izaera desmuntagarria izango dute beti, eta kasuan-kasuan baimenduko dira. Eskaeran horien neurriak eta ezaugarriak adierazi behar dira.

Eranskinean jasotzen dira deskribatutako altzarien eredu irudiak.

Terraza eratzen duten elementuetan ezin daiteke publizitaterik jaso, Udalaren edota ostalaritzako establezimenduaren logotipoa baino ezin daiteke agertu. Udalak, bestalde, horien egokitasunari buruzko oniritzia eman beharko du.

Hori horrela, Udalak onartu ahal izango du bestelako altzariak jartzea, terrazaren kokapenak edota ingurunearen ezaugarriek hala eskatzen badute. Proposatu dezake ere bestelako osagai berritzaileak jartzea bezeroei emandako arretaren kalitatea hobetzeko xedearekin eta, beti ere, inguruko estetika kaltetu gabe.

IV. TITULUA.- TERRAZA FINKOAK JARTZEKO BALDINTZAK

10. artikulua.- Terrazaren ezaugarriak

Terraza finkoaren azalerak ez du, inolaz ere, 48,00 metro koadro baino gehiago hartuko, ez da 16,00 metro koadro baino txikiagoa izango eta, gehienez ere, 12 metro luze izango da.

Oro har, oinezkoen guneeetan jarritako terraza finkoek 5,00 metroko gutxieneko zabalera librea eta 4,50 metroko altuera (galiboa) bermatu beharko dute, larrialdi bati erantzuteko bertaratutako suhiltzaileen ibilgailu batek maniobra egiteko aukera izan dezan. Gutxieneko zabalera libre hori 3,50 metrora mugatu ahal izango da 9,00 metro baino gutxiagoko beheranzko ebakuazio altuera duten eraikinen aurrean.

Terraza finkoek diseinu irekia eduki beharko dute, ikusmiren iragazkortasunari lehentasuna ematen diona. Hala, bada, terrazek ez diote oztopo egingo herria hautemateko moduari, eta ez dute edukiontzi konpaktu bezala jardungo.

Terraza finkoen esparrua, lurrari lotutako alboetako haize-babesleek mugatuta egongo da. Haize-babesle horiek 1,50 metroko altuera izango dute gehienez ere, *Oxironez* pintatutako metalezko mihizatzea edukiko dute eta segurtasunezko beirazko panelak izango dituzte, bai eta ehun-material leunezko gainazal desmuntagarria ere.

Terraza finkoa estali daiteke bai bi isuritako olana zatikatuarekin, bai erdian masta duten itzalkin handiak edo eguzkitakoak erabilita. Horrek ez du baztertuko behar bezala oinarritutako soluziobide espezifikoak onartzeko aukera.

Estaltzeko aukeratutako sistema eta haren tonua edozein dela ere, gune bakoitzean berdina izan beharko da: ez da onartuko sistema edo tonu ezberdinak egotea terraza finkoen gune batean. Olanaren hegala, gutxienez, 2,20 metro eta gehienez, 3,50 metro altu izango da.

Eranskinean jasotzen dira deskribatutako terraza moten eredu irudiak.

Terrazek Ordenantza honek jasotako gutxieneko zabalera librea bermatzen ez duten oinezkoen guneeetan, instalazioak modu errazean desmuntatzeko modukoak izango dira, edota banden sistema bat eduki beharko dute, alboetako haize-babesleak berehala tolestea ahalbidetzen duena, 5,00 metroko gutxieneko zabalera librea bermatua egon dadin. Kasu horietan, terraza estaltzeko erdiko mastadun itzalkin handiak edo eguzkitakoak baino ezin izango dira erabili, eta egunero-egunero, itxi aurretik, terrazetako osagai guztiak batu beharko dira.

% 6tik gorako malda duten azalerak horizontalago egiteko, terraza egonkorrei lurrean oholtza jarri ahal izango zaie, kanpoaldeko egur teknologikoarekin edo horren antzeko zerbaitekin egindakoa, erraz desmuntatu daitekeena eta mugikortasun murrizta duten pertsonentzat egokia dena. Ez da inolaz ere onartuko lurrean moaketak edo garbitzeko zailak diren elementuak jartzea. Kasu horietan, terrazara sartzeko arrapala perimetroaren barnealdean jarriko da, espazio publikoari tarte gehiago kendu gabe.

11. artikulua.- Altzarien baldintzak

Kale, oinezkoen gune, plaza, espazio libre berezi eta oinezkoentzako kale guztietan jartzen diren **terrazza guztietako altzariak eta ekipamendua berdintsuak** izango dira, eta behar bezala adostutako konponbide bateratuak proiektatuko dira. Horrela, bada, Udalak erabakiko du zein diren altzari horietarako eta hiri-ekipamenduetarako ezaugarri tekniko eta estetiko egokienak.

Terraza egonkorretako elementuetan ezin daiteke publizitaterik jaso, Udalaren edota ostalaritzako establezimenduaren logotipoa baino ezin daitezke agertu. Udalak, bestalde, horien egokitasunari buruzko oniritzia eman beharko du, lehentasuna eman ez taldearen uniformetasunari.

Hori horrela, Udalak onartu ahal izango du bestelako elementuak jartzea, terrazaren kokapenak edota ingurunearen ezaugarriek hala eskatzen badute. Udalak proposatu dezake ere bestelako elementu berritzaileak jartzea, bezeroei emandako arretaren kalitatea hobetzeko xedearekin eta, betiere, inguruko estetika kaltetu gabe.

12. artikulua.- Terraza egonkorretako instalazioak

Terraza finkoek, Tentsio Baxuko Erregelamendu Elektroteknikoak ezarritako baldintzak betetzen dituen argiteria-instalazioa eduki beharko dute.

Kableak ez dira jendearen eskueran egongo. Era berean, kable horiek ez dira espaloien gainetik igaroko, eta ez dira hiri-altzariak edota arbolak horien euskarri gisa erabiliko.

Terrazek klimatizazio sistemak ere eduki ditzakete, indarrean dagoen gaiari buruzko araudia betetzen dituztenak.

Halako terrazetan ez da iturgintzako edota hondakin-urak kanporatzeko instalaziorik onartuko.

V. TITULUA.- BAIMENAK IZAPIDETZEA

13. artikulua.- Terraza desmuntagarriak

Terraza desmuntagarria jartzeko baimena eskatzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- **Idatzia**, honako hauek jasotzen dituen: adierazitako ostalaritza-jardueraren kokapena; jarri nahi diren mahaien, aulkien eta eguzkitakoen kopurua edota bestelako instalazio osagarriak; eta proposatutako modelo zehatza, Ordenantza honekin bat datorrena.
- **Plano kotatua**, 1:100 eskalan, adierazten duena ostalaritzako lokalarekiko, terraza non kokatu nahi den eta eskatutako altzariak nola jarriko diren.
- **Ondoko jarduerako titularraren adostasuna egiaztatzen duen agiria**, Ordenantza honetako 7.5 artikuluan jasotako kasuetarako.

14. artikulua.- Terraza finkoak

Terraza finkoa jartzeko baimena eskatzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- **Idatzia**, honako hauek jasotzen dituen: adierazitako ostalaritza-jardueraren kokapena, jarri nahi den terrazaren azalera eta, Ordenantza honen arabera, berau osatzen duten elementuen ezaugarriak.
- **Plano kotatuak**, 1:100 eskalan, terrazaren okupazioa adierazten dutenak oinplanoan eta altxaeran, eta jasotzen dutenak terraza zein ostalaritza-lokalari dagokion, eragindako espazio publiko zehatzarekin zein harreman duen eta bertako zerbitzu publikoei, hiri-altzariei eta arboladiari zelan eragiten dion.
- **Argazkien muntaia edo infografia**, jarri nahi diren instalazioak deskribatzen dituen, instalazio horiek herriko paisaian duten eragina ebaluatu ahal izateko.
- **Erantzukizun zibilari eta suteei aurre egiteko aseguru poliza**. Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzen dituen Legeak ezartzen du Establezimenduko titularrak horrelako bat eduki behar duela, terrazako funtzionamendutik erator daitezkeen balizko arriskuei aurre egiteko.
- **Ondoan dagoen jarduerako titularraren adostasuna egiaztatzen duen agiria**, Ordenantza honetako 7.5 artikuluan jasotako kasuetarako.
- **Lurzoruaren jabeen idatzizko baimena**, terrazak jabetza pribatuko eta erabilera publikoko tokietan jartzen diren kasuetarako.

VI. TITULUA.- ERABILTZEKO BALDINTZAK

15. artikulua.- Ostalaritzako terrazak erabiltzeko baldintzak

Jardueraren titularrek terrazak hartutako tokia garbitu beharko dute, gutxienez, egunean bi aldiz eta, betiere, ixterakoan.

Hautsontziek ura edukiko dute.

Altzariak berriak izango dira, eta zaintza-egoera ezin hobean gorde beharko dira.

Terraza desmuntagarrietan derrigorrezkoa izango da ixteko ordua heltzerakoan espazio publikotik terrazako elementuak egunero kendu eta lokalaren barruan gordetzea.

Terraza egonkorretan, lokala ixterakoan, altzariak lokalaren barruan gorde edota terrazaren gunean bertan pilatu ahal izango dira, behar bezala lotuta (mugitu ez ditzaten). Ordenantza honek ezarritako gutxienerako zabalera libre galdagarria bermatuta ez dagoen oinezkoen gunetako terrazetan, alabaina, terrazak desmuntatu egin beharko dira, edota elementu tolesgarriak tolestuta utzi, eta altzariak lokalaren barruan gorde beharko dira.

Terraza egonkorrak jartzeko baimenaren baldintza espezifikoaren artean jaso ahal izango da fidantza bat eratzeko beharra, terraza jarriko den zoladurari edota inguruko hiri-altzariei eragindako balizko kalteei erantzuteko berme bezala.

16. artikulua.- Terrazen ordutegia

Terrazen ordutegia, bai desmuntagarriena, bai finkoena, honako hau izango da:

Urriaren 1etik maiatzaren 31ra:

- Astelehenetik ostegunera	09:00etatik 22:00etara.
- Ostiral, larunbat eta jai-bezperetan	09:00etatik 23:00etara.
- Igande eta jaiegunetan	10:00etatik 22:00etara.

Ekainaren 1etik irailaren 30era (udako ordutegia):

- Astelehenetik ostegunera	09:00etatik 23:30era.
- Ostiral, larunbat eta jai-bezperetan	09:00etatik 00:30era.
- Igande eta jaiegunetan	10:00etatik 23:30era.

Zamalanak egiteko ordutegia dagoen tokietan, terrazak irekitzeko ordutegia hasiko da zamalanetarako ordutegia amaitzen denean.

Herriko jaietan, Aste Santuko ostegunetik astelehenera arte, Inauterietako ostegunetik asteartera arte eta gabonetan, abenduaren 21etik urtarrilaren 6ra arte, Alkatetzak 2 orduko luzapena eman dezake. Luzapen hori, edozelan ere, berariaz erabaki beharko da. Auzoetako jaietan, luzapena auzo bakoitzeko establezimenduei aplikatuko zaie.

17. artikulua.- Terrazen kontrola

Udalak terrazen egokitasuna ikuskatu eta kontrolatu ahal izateko, titularrek lokalean honako dokumentazio hau eduki beharko dute:

- Terraza jartzeko baimena aitortu zitzaion Dekretuaren kopia, baimendutako mahaien, aulkien eta bestelako elementuen kopurua eta baimenaren baldintzak jasotzen dituenak.
- Terraza jartzeko baimena eskatzerakoan aurkeztutako dokumentazio grafikoaren kopia.
- Ordenantza honetako 14. artikuluan jasotako aseguru-polizaren kopia, erantzukizun zibilari eta suteei aurre egitekoa.

Horrez gain, Udalak emandako baimena erraz ikusteko toki batean egon beharko da. Bertan honako hauek agertuko dira: establezimenduaren izena; terrazan baimendutako elementuak (aulkiak, mahaiak, eguzkitakoak, eta abar); hala balitz, terrazari arreta emateko zerbitzuaren derrigortasuna; terrazaren ordutegia; eta baimenean ezarritako beste edozein baldintza espezifiko.

VII. TITULUA.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

18. artikulua.- Terraza baimenik gabe jartzea

1.- Udal agintaritzak, kautela neurri gisa, berehala kendu ahal izango ditu bide publikoan baimenik gabe jarritako terrazak edo elementu osagarriak, dagozkion zehapenak ezartzeko aukeraren kalterik gabe.

2.- Jabetza edo erabilera publikoko lurzorua halako instalazioekin okupatzea dagokion baimenik izan gabe, arduradunari indarrean dagoen ordenamendu juridikoan aurreikusitako zehapenak ezartzea ekar diezaioke, aurretiaz dagokion zehapen-espedienteak izapidetuta. Aurreko guztia gorabehera, erabilera publikoko lurzorua okupatu izanari dagozkion tasak ordaindu beharko dira.

19. artikulua.- Baimenean jasotako baldintzak ez betetzea

Ordenantza hau edota emandako baimenean jasotako baldintzak ez betetzeak, indarrean dagoen legeriak aurreikusitako zehapen ekonomikoa ezartzea ekarriko du, aurretiaz dagokion zehapen-espedientea izapidetuta. Horrez gain, baimena baliogabetu ere egin ahal izango da, eta instalazioa berehala kenduarazi, baldin eta Udalak egindako errekerimendua desobeditzen bada.

20. artikulua.- Betearazte subsidiarioa

Bide publikoan jarritako elementuak kentzeko udal aginduari jaramon egiten ez bazaio, Ordenantza honetan jasotako kasuetan, Administrazioak elementu horiek kendu eta zehaztutako lekuan gordailatuko ditu, interesdunaren kontura eta betearazte subsidiarioaren bidea erabilita. Jabeak elementuok bertatik atera ahal izango ditu, aurretiaz dagozkion tasak eta gastuak ordainduta.

21. artikulua.- Arau-hausteen sailkapena

Ordenantza honetan jasotako arauen hausteak izango dira arinak, larriak eta oso larriak.

1.- Falta arinak dira:

- a) Ordenantza honek galdatutako ezaugarri teknikoak betetzen ez dituzten mahaiak, aulkiak edo elementu osagarriak jartzea.
- b) Mahaiak, aulkiak edo elementu osagarriak jartzea baimendutako kokapenetik kanpo.
- c) Baimendutakoak baino mahai, aulki edo elementu osagarri gehiago jartzea.
- d) Terrazak zabalik egotea ezarritako ordutegitik kanpo.
- e) Terrazetako mahaiak, aulkiak edo elementu osagarriak bide publikoan gordetzea.
- f) Terrazan eta haren inguruneetan apaingarririk ez egotea edota bertan garbitasun falta egotea.
- g) Terrazaren jardueraren eraginez hiri-altzariei eragindako narriadura.
- h) Ordenantza honetako 17. artikuluan jasotako dokumentazioa ez edukitzea, edota hura erakutsi nahi ez izatea.
- i) Ordenantza honetan ezarritako baldintzak ez betetzea, ez betetze hori falta larritzat edo oso larritzat jotzen ez denean.

2.- Falta larriak dira:

- a) Terrazak eta bestelako elementu osagarriak jartzea baimenik gabe.
- b) Udal ikuskatzaileek eta agintariek egindako errekerimenduei desobeditzea.
- c) Terrazan musika tresnak edo irudiak emateko aparatuak jartzea, bai eta zuzeneko musika jotzea ere.
- d) Azken 12 hilabeteetan hiru falta arin egin izana.

3.- Falta oso larriak izango dira:

- a) Errespetu faltak: udal ikuskatzaileak eta agintariak iraintzea, samintzea edo mehatxatzea.
- b) Terraza aldi baterako ez kentzea jaiak edota ekitaldi kulturalak, zibikoak edo kirol-ekitaldiak daudenean.
- c) Azken 12 hilabeteetan hiru falta larri egin izana.

22. artikulua- Zehapenak

Ordenantza honi egindako arau-haustek, honako eskala honen arabera zigortuko dira:

- Falta arinak: 500,00 eurora arteko isuna.
- Falta larriak: 500,01 eta 1.000,00 euro arteko isunak.
- Falta oso larriak: 1.000,01 euro eta 2.000,00 euro arteko isunak eta baimena baliogabetzeko aukera.

Zehapenak ezartzeko orduan ondoko hauei begiratuko zaie: erruduntasun graduari, egindako faltaren garrantziari, arau-haustek dakarren arriskuari, berrerortzeari edo berriro egiteari eta bestelako inguruabar astungarri edo aringarriei.

23. artikulua- Zehapen-prozedura

Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeak eta otsailaren 20ko Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko 2/1998 Legeak araututako zehapen-ahalmenari buruzko printzipioei egokituko zaie Ordenantza honetan araututako zehapen guztietarako prozedura.

AZKEN XEDAPENAK

Ordenantza indarrean sartzea

Ordenantza hau indarrean sartuko da haren behin betiko onespena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean.

Ordenantza indarrean egotea

Ordenantza hau indarrean egongo da Basauriko Udalak berau ordezteko beste bat onartu eta argitaratzen ez duen bitartean, edota erakunde eskudun batek Ordenantza honen edukia zabaldu, aldatu edota eduki horrekin kontraesanean dagoen goragoko mailako xedapenik ematen ez duen bitartean.

BBO 172 zenbakidun alean argitaratua (2013/09/09)

ERANSKINA

TERRAZA DESMUNTAGARRIETARAKO ALTZARIAK. Eredu irudiak.



Mahai pilagarri karratua: 60 X 60 cm.



Mahai pilagarri borobila: Ø 60 cm



Aluminiozko xafladun aulki pilagarria



Plastikozko mamizko aulki pilagarria



Aluminiozko mahai altu borobila: Ø 60, alt. 110 cm



Aluminiozko xafladun bizkarraldea duen aulki altua



Olanazko eguzkitako borobila: Ø 250/300 cm



Olanazko eguzkitako karratua: 300 x 300 cm

TERRAZA FINKO MOTAK. Eredu irudiak



Terraza egonkorra olanarekin



Terraza egonkorra eguzkitakoekin